

**EPAIKETA.** Hiltzaileak bat baino gehiago izan zirela uste duten arren, Yimmy Matute bakarrik jesarriko da aulkian

# Nazioarteko batzorde batek ikuskatuko du Egiluzen auzia

Hilaren 29an hasiko da euskal kooperantea ustez hil zuenaren epaiketa, Kolonbian

Iñaki Uriarte | BILBO

Hurrengo asteartean ikusiko da Kolonbiako Quibdo hirian Iñigo Egiluz eta Jorge Luis Mazoren hilketaren argitzeko auzia. Gaur sei lagunekoa batzorde bat abiatuko da Kolonbiarantz, fiskaltzarekin hitz egin eta auzia ikuskatzeko.

Atzo, batzorde horretako kide diren Aitor Egiluz (Iñigo Egiluz zenaren anaia) eta Xabier Markiegi (EAEko ararteko ohia) ezkor agertu ziren auziaren emaitzarekin, are gehiago egile guztiak akusatuen aulkian egongo ez direla ikusita. Batzordearen zeregina ikerketa bultzatu eta epaiketaren zuzentasuna ikuskatzea izango da.

Taldean, Aitor Egiluz eta Xabier Markiegi gain, beste lau partaide daude: Igor Irigoien Eusko Jaurlaritzako Kooperaziozuzendaria, Patricia Bárcena Bizkaiko Abokatuen Elkargoko ordezkaria, Marielle Hallez Mugarik Gabeko Abokatuak elkarteko kidea eta Iñaki Markiegi Hirugarren Mundua

eta Bakea taldeko lehendakaria. Sei horiekin batera arituko dira, halaber, Nazioarteko Bake Brigadak elkarteko kide bat eta Belgikako kazetari bat.

Egiluz euskal kooperantea eta Mazo apaiz kolonbiarra Atranto ibaian hil zituzten. Txalupa batean zihoazela paramilitarrentz onrtzi handiago batek jo eta hondatu zituen, 1999ko azaroaren 19an. Ikerketako kideek atzo azaldu zuten, paramilitarrentz onrtzia Poliziaren instalazioetatik abiatu zen.

Urte bi geroago hasiko da ekintza horretan parte hartu zuela onartu zuen pertsona bakarraren kontrako epaiketa. Yimmi Matute izango da akusatuen aulkian, baina Egiluzen sendiak eta Hirugarren Mundua eta Bakeak uste dute erasotzaileak gehiago izan zirela, gutxienez beste bat. Matuteren adierazpenen ondorioz, beste pertsona baten partaidetza argitu zuten, baina ustezko hiltzailea identifikatzeko orduan, pertsona horren datuak ezabatuta zeu-



LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS  
Gaur abiatuko dira Kolonbiarantz euskal begiraleak.

den erroldatik. Azkenean, eliza erroldetan aurkitu zuten pertsona horren berri. Ez da asteartean akusatuen aulkian izango.

## Arazo ugari ikerketarako

Sendiak eta Hirugarren Mundua eta Bakeak ikerketarako oztopo ugari aurkitu dituzte gertatutakoa argitzerakoan. Mikel Manzidorrek azaldu zuen sendiak eskatutako frogak bat —gertaeren berregitea—, sei aldiz geratu dela bertan behera, aitzakia txikiak zirela medio.

Bigarren inputatua ez omen da ofizialki existitzen. «Izenaren tokian orbana agertzen da», azaldu zuen Mikel Manzidorrek.

AITOR EGILUZ

## «Ahaleginduko gara argitzen»

«Daukagun laguntzarekin, ahaleginduko gara dena argitzen. Hau lehenengo urratsa izango da. Saiatuko gara epaiketa zuzena izan dadin, eta inputatuta daudenak —eta inputatu gabe egon arren guretzat inputatu direnak—, ordain dezaten egindakoagatik», adierazi zuen Aitor Egiluzek, Iñigo Egiluz zenaren anaia. Mendeku sentimendua errotik baztertu zuen: «Ez dugu nahi gauza pertsonala izaterik; anaia nuelako. Jende horri lagundu egin behar zaio; nire anaia ere haiei lagundu nahi zien, eta horregatik ordaindu zuen», argitu zuen.

Lagundu dietenei eskerrak eman zizkien Aitor Egiluzek. «Sendikoak oso babestuta sentitu gara, baina hori, tamalez, ez da gertatzen garatu gabe dauden herrietako sendietan. Han, tratatu txarrak jasaten dituzte, eta giza eskubideak hausten zaizkie une oro».

**AZPIEGITURAK.** Gogoeta egin zuten atzo Baionan hainbat alorretako adituek, Angeluko diputatu sozialistak antolatuta

## Espilondo: «Azpiegiturekin aberastasuna sortu nahi dugu, Pirinioak hondatu gabe»

Aitor Renteria | BAIONA

Ingurumen saileko arduradun, unibertsitateko irakasle, gizarte eragile eta poliko anitz bildu ziren atzo Jean Espilondo Angeluko diputatuaren inguruan. Egun osoan luzatu zen gogoeta ardatz nagusia Pirinioak zeharkatzeko molde eta ikuspegiak aztertzea izan zen.


Goizean, egungo ahuleziak, arrisku guneak eta oztopoak aztertutako ekonomia eta ingurumenaren ikuspegitik. «Pirinioak zeharkatzerakoan atzemanen dugun lehen traba gaur egun azpiegituretan bizi dugun beranta izanen da», nabarmendu zuen Espilondok. «Hamar urteren buruan zinez ezagutuko dugu aitzinikusten dugun satu-

razioa, eta horri buru egiteko, ahal bezain zaluen hartu behar dira erabakiak; azpiegituretan inbertitu, baina beti garapen jasagarriaren ikuspegitik», adierazi zuen diputatuak. «Sintesian, azpiegitura berriekin aberastasuna sortu nahi dugu, Pirinioak hondatu gabe», erran zuen Espilondok, eta Mediterraneo ardatza eta Atlantikoko berritua ere behar direla aldarrikatu zuen.

Politikoen proposamenak egin behar dituztela gogoratu zuen Espilondok. «Alta, Espainia eta Frantziari, ondoren Europari, estatuei doakie hautua egin eta egitasmoak gauzatzeko», zehaztu zuen Espilondok. «Biriaturako kamioien % 80 Europa para doaz Frantziatik igarota»,

erran zuen Espilondok, «horregatik, Espainiak bere ahalbideak orekatu behar ditu berriro, guretzat egokitzeko».

Une honetan, bi erronka nagusi daudela azaldu zuen Philippe Duron Calvadosko diputatu eta lurralde antolaketa ordezkariak. «Lehen erronka lurraldea berriro osatzea da, Europari irekitzea eta herri berriak Europan sartzea», zehaztu zuen Duronek. Egin behar diren egitasmo guztiak garapen jasagarriaren ikuspegitik burutzeko litzateke bigarren erronka, Duronen ustez. «Europako lurralde antolaketa behar dugu, lurraldeak espezializatuko zirela uste baikenuen, eta ez da horrela agitu», bukatu zuen Duronek.



GAIZKA IROZ / ARGAZKI PRESS  
Espilondo diputatu sozialistak antolatu zuen atzoko bilkura.